

IXA TALDEA

Deskribapena: Robota desberdinen imajinak ageri dira.

Kike (off ahotsa): Pertsonak bezala robotak ere mota askotakoak daude: kirolariak, traketsak, lotiak, lotsagabeak baita bertsolariak ere.

Deskribapena: Taulagainean aurkezlea, bertsolariak eta robota bertsotan ageri da.

Aurkezlea: “Galtxagorri!”

Bertsolaria: “Ba nere lau oinak Galtxagorrintzako: bertsolari, kantari, ugari eta adi.”

Galtxagorri: “Sumatu genezake hainbat bertsolari, esperantzaz gabiltza gaurkoan kantari, horiek ere ez ditut izango ugari, euroa hemen da ta egon zaitez adi.”

Deskribapena: Bertsoa txalotzen ageri da publikoa eta ondoren, Kike Euskal Herriko Unibertsitateko informatika fakultatean sartzen ikusten dugu robota batekin topo egiten duen arte. Alde batetik eta bestetik begiratzen dio eta burua ikutzen dio.

Kike: “Eh? Hau zer da?”

Nao robota: “Kaixo, ongi etorri informatika fakultatera. RSAIT taldeko Nao robota naiz. Gizaki-robot elkar-ekintzarako bereziki prestatua, zertan lagun zaitzaket?”

Kike: “Hara, ni Xabier Arregiren bila nator, IXA taldekoa, badakizu non dagoen?”

Nao robota: “Xabierren bila zabilta?”

Kike: “Bai!”

Nao robota: “Hementxe dago, laborategian. Etorri nirekin mesedez.”

Kike: “Bale, bale!”

Deskribapena: Nao robota mugitzen hasten da ate bateraino Kike atzetik jarraika duela.

Kike: “Hara, ba, hau izango da! Beno, gero arte Nao! Oso eskertuta nao! Kontxo! Xabier!”

Xabier: “Kaixo Kike!”

Kike: “Kontxo! Atezain xeble xamarra daukazue hor kanpoan, eh?”

Xabier: “Bai, bai.”

Kike: “Beno, zuek IXAkoak oraindik ez zarete robotak, ezta?”

Xabier: “Oraindik ez, oraindik ez!”

Kike: “Eta Xabier, robot bertsolariak sortu egiten dira edo egin egiten dira?”

Xabier: “Egin, egin egin behar dira. Ez dago beste modurik.”

Kike: “Aizu, hasteko zorionak! Hogeita bost urte bete dituzue, Abadia saria irabazi duzue, baina zer da IXA taldea?”

Xabier: “IXA unibertsitateko ikerketa taldea da, berrogeita hamar bat lagun edo bagea bai, tartean hizkuntzalariak eta informatikariak ari gea elkarlanean eta bueno, gure arloa da hizkuntzaren prozesamendua, alegia makinei erakutsi nahi diegu hizkuntza erabili dezaten, gure kasuan euskera erabili dezaten batez ere eta hartara, ba, bueno, ba gizakion eta makinaren arteko komunikazioa erosoagoa eta hobea izan dadin.”

Kike: “Eta hori guztia non ikusten da gure eguneroko bizimoduan?”

Xabier: “Ba xuxen zuzentzaile ortografikoa erabiltzen dugunean eta euskaldunon artean arrunt ezaguna da xuxen”

Kike: “Bai nik askotan erabiltzen dut”

Xabier: “Bai, ba hor ere hizkuntza erabiltzen ari gara makinan, ordenagailuan eta esate baterako euskarazko bilatzaileak erabiltzen ditugunean, edo zer esango dizut”

Deskribapena: Xabierrek sakeletik mugikorra ateratzen du.

Xabier: “esate baterako traste hau hartuta, trasto honi esango bagenio “non dago autobus geltokia?””

Kike: “Itzultzen ai da?”

Xabier: “Bai.”

Mugikorra: “Where is the bus station?”

Kike: “Kontxo baina hori ja ba al dago?”

Xabier: “Badago, badago, badago eta hemen ba gure arloko teknologia erabiltzen da eta gainera hemen lortu da batetik nire ahotsa, euskarazko ahots hori testu bihurtzea, ondorenean testu euskarazko testua ingelesezko testu egin eta hirugarren urratsean ingelesezko testutik ingelesezko ahotsa lortu da beraz hiru urrats eta hiru urrats horien ondorioz nire euskerazko esaldi hori ingelesezko esaldi bihurtu da.”

Kike: “Horrela ikusita sinestezina dirudi eta nola lortzen da hori guztia?”

Xabier: “Lan handia eginez, bai, bai horrek eskatzen du informazio eta teknologia asko sartu behar zaiola edo erakutsi behar zaiola makinari eta askotan eskulan handia eskatzen du horrek eta bueno hain zuzen ere IXA taldea horretan saiatu da urteotan, ezta? Aurrena saiatu gara azpiegitura edo oinarritzko tresnak sortzen, gerora, tresna horien gainean aplikazioak egin ahal izateko.”